

VERBOAREN HAZIAK

Irakurri dut combonianoen “Mundo negro” aldizkarian, 2006ko urrikoan, Juan González Núñez misioneroak idatzia “Entre fundamentalismo y antropologismo” artikulua interesantean, honako hau: “El Concilio, al hablar de las “semillas del Verbo” contenidas en las culturas y religiones de los pueblos, nos vino a decir que Dios había precedido al misionero. Y no para invalidar su llegada, sino para prepararla”. Eta nik hazi horien gainean, nire azken teorizazioen arabera, zerbait komentatu egin nahiko nuke.

Hasteko esan nahiko nuke ezen niri antropologia hitza ez zaidala batere gustatzen eta desegokitzat hartzen dut gainera gaia historian barruan dagoelarik batez ere, zeren delako antropologia horrek estudiantzen dituen herriak ez dira historikoak ala?, ala pentsatu behar dugu historikoa bakarrik dela gure zibilizazio okzidentalak onartzen duena bakarrik, hau da, bere historia?. Jakin beharko lukete horiek herri indigena haietatik ere badela posible “antropologia” egitea gure zibilizazio okzidental zorioneko hau estudiantzeko. Ea gustatuko litzaigukeen hain modu gutiesgarrian tratatuak izatea!. Denok gara historikoak, beraz. Eta egia bada ere ezen gure zibilizazio okzidenta-

lean teorizatu dela ondoen universaltasunaz, horrek ez dakar zibilizazio okzidentala izatea universal, zeren universaltasuna misterioa baita, eta soilik ez da erortzen falazian gure zibilizazio okzidentalean misterio hori santutzat hartzen duena, eta ondorioz baita Eliza katolikoa ere duena egiazko tesoroen gordeleku, jende eskandaloso asko ere pasatua bada bertatik. Has nadin baina nire argumentaziobidean.

Kultura guztietako humanoen baitan dago ezagutzeko joera berezko bat, eta ezagutze hori egiaren ezagutzea da, bistan baitago ezen falaziazkoa ezagutu nahi izatea absurdoa dela. Beraz, egiarako halako joera universal bat dago, kultura ezberdinetan desarroilatu izan dena molde diferenteetan. Eta aniztasun handia dago, baina aniztasun handi horren azpian, oinarrian, joera bat dago universal dena, egiari buruzko joera praktikoko bat, zeren eta zenbat eta egiazkoagoak gure presupostuak eta probabilidade gehiago dugu asmatzeko gure erabakietan. Presupostu faltsuekin, ostera, engainatuta dabilenaren moduan gertatzen ahal zaigu, estropozu egiten dugula, eta konfundidu bidez. Eta hori zintzoki berba egiten duen edonork ez du nahi.

Marcel Mausek behin idatzi zuen ezen aztiekin (gure zorioneko euskal kulturako pertsonaiak ere badira) batez ere nagusiki bilatzen zutena zela ahalmena judizio sintetikoak a priori egiteko. Baina horretarako jada Kantek teorizatu zuen nola behar dela ezagutza bat universal, mundu honetan ezin iritsi daitekeena, eta ondorioz misterioa dena. Beraz, inork ez du inongo kulturan halako judizio sintetikorik a priori egin. Baina ezagutza, batez ere medikua, asko garatua dago kultura ezberdinetan, gehienbat landare medizinalekin eta hola. Zeren medizina bilatzen baita nagusiki mundu desterruzko honetan.

Eta egia baldin bada Marcel Mausek dioen hori orduan ondorioztatu behar dugu ezen kultura guztietan bilatzen dela ezagutza universal. Zeren soilik halako ezagutzatik posible baita judizio sintetikoak a priori egitea, hau da, osatzea, adibidez.

Baina ezagutza universalak, definizioz, ezagutza privaziogabea da, eta privazioa bada gaizkiaren kausa orokorra, orduan ezagutza universalak ezagutza santua da, bere barrenean ongiaren izaeraz dago osatua. Misterioa, beraz, santua da.

Eta nik, Marcel Maus irakurri aurretik ere, deskubritu dut ezen Jesusek (figura historiko egiazko bat) bazituela egiten halako judizio sintetikoak a priori. Nik daukat ezen hori dela mirari baten definiziorik osatuena orain arte. Kant ez zen ohartu horretaz, baina mirariaren definizioa osatu zuen ezin hobeto. Da zerbait zientzia materialistak inoiz ezin argitu duena, hain zuzen ere, ezagutza universal batetik datorrelako halako ahalmena, eta soilik Jesusek egiten zituen Berak, erakutsiz horrela mundu honetakoa ezin den ezagutza universalaren jabe zela.

Beraz, konturatu gabe, baina kultura guztiek bilatzen dute Jesus hura, Jesusek seinalatzen digun misterio santu hori. Ez zigun misterioa argitu, ez zigun esan nola egiten zuen hori, ez zigun erakutsi ezagutza universal hori esplizituki, eta ez dakigu egiten judizio sintetikorik a priori, gure zientzia hortik arrunt azpikoa da, faliblea eta falaziaz betea, pobrea beti ere, baina bazigun esan ezen mostaza hazi baten tamainako fedea edukiz gero guk ere badezakegula egin halakorik. Baina halako fede minimoa ere ez dugu dirudienez, ikusiz mundu hau nola dabilen ez dugu osatzeko kapazidade askorik erakusten. Guk alderantziz ere egiten dugu, gauzak txartoago ipini, joera sintetikoa baino, osagarria, joera analitikoa dugu guk gehiago, kritikatzekoa, eta hori kasurik edukatuenetan. Eta gure zientzia materialista bada aurreratu asko, eta indigena batentzat prodigioak ere egiten ditugu, eta batzuetan onerako, baina prodigioak deabruak ere egiten ahal ditu, eta mirari batek osatzen badu (hori da horren fruitua, eta hortik ezagutzen ahal dugu), deabruaren prodigio batek gaitz egiten du, eta hortik diagnostiko diferentziala egin ahal izatea, hizketa medikua erabiltzea permititzen bazait. Filosofian hori izango litzateke falaziazkoa egiazkotik bereiztea, eta, jakina denez, egiazkoa aukeratzea. Discernimendua.

Eta kultura bat katolikotasunera hurreratzen denean, edo filosofia bat, orduan ez da anulatua (falaziazkoa desestimatzea hori bertakoeak ere egin izan dute euren historian), alderantziz baizik, orduan da garatua bere azken bururaino. Mundu honetan dena amaitzen bada ere misterio santu bati buruzko teori-zazio batean, misterio santu horren egiazkotasun errealaren demostrazioarekin ere nire kasuan. Eta nik egiten dudana ez bada obnubilazio baten ondorengoa, orduan demostrazio hori pizgarria da sinestu nahi duenarendako.

Roman Garmendia

1991

1992

1993

1994

1995

1996

1997

1998

1999

2000

2001

2002

2003

2004

2005

2006